| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi | **85,1** | **89,6** | **91,9** | **89,7** | **14,9** | **10,5** | **8,1** | **10,4** |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta 1989-2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 1989-2004.

Analizando este comportamiento según el tamaño de los municipios, se observa que en todos los casos la intensidad de relaciones es muy alta. Lo mismo sucede según cuál sea la tipología de vivienda, aunque se observa que este tipo de relaciones son muy superiores entre las personas que comparten piso en bloques de vivienda y que, obviamente, frecuentan el contacto, los saludos y las relaciones sociales en mayor medida, 91,4% mantienen relaciones de sociabilidad intensas/frecuentes frente al 75,9% de quienes viven en casas aisladas.

Udalerrien tamaina oinarri hartuta jokabide hori aztertzen badugu, ikusi ahal izango dugu handi, txiki nahiz ertainetan begikotasunezko harreman handia dagoela auzokideen artean. Gauza bera gertatzen da etxebizitza mota batean nahiz bestean bizi direnekin. Nolanahi ere, esan genezake etxebizitza-blokeetan pisuan bizi diren pertsonen artean begikotasunezko harreman handiagoa dagoela besteetan baino. Izan ere, etengabe baitaude kontaktuan, elkar agurtu ohi dira. Blokeetan bizi direnen %91,4k begikotasunezko harreman handia edo oso handia dute auzokideekin; etxe bakarretan bizi direnen kasuan, aldiz, %75,9k.

Para finalizar, únicamente señalar que no se han observado diferencias significativas por niveles de ingresos. En cualquier caso, una idea muy gráfica de la evolución de las relaciones vecinales tanto desde el punto de vista de la ayuda mutua como de la sociabilidad viene reflejada en el gráfico 6.

Azkenik, aipatu besterik ez, alde nabarmenik ez dagoela diru-sarrera maila batekoen nahiz bestekoen artean. 6. grafikoak, hortaz, auzokideen arteko harremanen eboluzioaren irudi grafikoa dakarkigu, bai elkar-laguntzeko harremanena baita soziabilitate harremanena ere.

*Evolución de las familias por el grado de relaciones vecinales según tipo en la C.A. de Euskadi. 1989-2004. (%)*

6

***Euskal AEko familien bilakaera, auzokoekin duten soziabilitatezko harreman-mailaren arabera. 1989-2004. (%)***




**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta 1989-2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 1989-2004.

### *3.2.2. Las relaciones de amistad*

La importancia de los amigos, de los grupos de iguales, constituye un elemento clave para entender la idiosincrasia de la sociedad. En una época en que muchos estudios ven al sujeto «abandonado a su suerte», la existencia de redes sociales basadas en la amistad y en las relaciones espontáneas constituye un elemento clave de la calidad de vida. Las relaciones de amistad son un instrumento que permite crear y recrear símbolos, compartir significados y sobre todo, otorga una estabilidad emocional y personal que es clave para entender la buena salud de nuestra sociedad.

### *3.2.2. Lagunarteko harremanak*

Lagun-taldeek, parekoen taldeek duten garrantzia funtsezkoa da gizartearen idiosinkrasia ulertzeko. Gaur egun egiten diren ikerketetako askok pertsonak «euren kontura» ibiltzen direla esaten dute. Baina badira adiskidetasunean nahiz bat-bateko harremanetan oinarritutako gizarte-sareak. Sare horiek, hain zuzen, bizi-kalitatearen funtsezko elementuetako bat dira. Adiskidetasun-harremanei esker sinboloan birsortu eta berregin ahal dira, baita esanahiak partekatu eta, batez ere, egonkortasun emozionala nahiz pertsonala bermatu ere. Azken alderdi hori funtsezkoa da gure gizartearen osasun egoera ona ulertzeko.

*Evolución de las familias por el grado de relaciones de amistad según género y nivel de ingresos en la C.A. de Euskadi. 1989-2004. (%)*

20

***Euskal AEko familien bilakaera, lagunekin duten harremanaren eta diru-sarrera mota eta mailarena arabera. 1989-2004. (%)***

| **Identifikatzeko aldagaiak**<br>Variables de identificación | **Handia/nahiko handia**<br>Intensas/frecuentes | | | | **Noizean behinekoa/bat ere ez**<br>Esporádicas/ninguna | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1989** | **1994** | **1999** | **2004** | **1989** | **1994** | **1999** | **2004** |
| **Generoa** / Género | | | | | | | | |
| **Gizonezko** / Varón | 79,1 | 77,9 | 90,2 | 83,0 | 20,9 | 22,1 | 9,8 | 17,0 |
| **Emakumezko** / Mujer | 76,1 | 72,6 | 86,6 | 83,0 | 23,9 | 27,4 | 13,4 | 17,0 |
| **Diru-sarrera maila** / Nivel de ingresos | | | | | | | | |
| **Murritza** / Bajos | 66,5 | 64,9 | 81,6 | 72,1 | 33,5 | 35,1 | 18,4 | 27,9 |
| **Erdi-mailakoa** / Medios | 77,9 | 76,5 | 85,5 | 86,1 | 22,1 | 23,5 | 14,5 | 13,9 |
| **Maila handikoa** / Altos | 85,3 | 84,8 | 93,6 | 92,7 | 14,7 | 15,2 | 6,4 | 7,3 |
| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi | **78,3** | **77,0** | **89,5** | **83,0** | **21,7** | **23,0** | **10,5** | **17,0** |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta 1989-2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 1989-2004.

Analizando los datos de la tabla 20 se observa que los amigos están muy presentes en la vida de los vascos y vascas. En este sentido, puede decirse que no existen diferencias de género, tanto los varones como las mujeres cultivan esmeradamente las relaciones de amistad. Además, los amigos han ido cobrando importancia en los últimos años; en la C.A. de Euskadi, el porcentaje de personas que manifiesta cultivar intensamente las relaciones de amistad ha pasado del 78,3% en 1989 al 83% en 2004.

Un aspecto que, a pesar de ser conocido, no deja de ser sorprendente, es el relativo a la importancia que tienen las relaciones amistad según estratos sociales. Hay quienes piensan que las personas de más humilde condición cultivan más las amistades que las que tienen una posición acomodada. Esta interpretación deriva del hecho de pensar que las personas de mayor estatus defienden una concepción mucho más privatística de la vida. Lejos de eso, los datos muestran claramente la posición contraria: son los individuos de nivel económico elevado quienes cultivan las relaciones de amistad en mayor medida. Así, en el año 2004, mientras el 72,1% de las personas con ingresos bajos afirman tener relaciones de amistad frecuentes, en el caso de las personas con altos ingresos este porcentaje es nada más y nada menos que del 92,7%. Como ya se ha dicho anteriormente, las relaciones de sociabilidad intensas se combinan al mismo tiempo con un modelo privatístico de vida.

Esto viene a corroborar la tesis de los defensores del capital social, entendido éste como ese recurso intangible que algunas personas poseen derivado del conocimiento de redes sociales. De este modo, puede decirse que, desde el punto de vista del significado de las relaciones de amistad, se produce el «efecto Mateo», es decir, *a quien tiene se le dará y, por contrario, al que tiene poco se le quitará,* es decir, además de las desigualdades sociales derivadas del mercado de trabajo se produce una desigualdad adicional derivada del capital social de los individuos.

Sea como fuere, las relaciones de amistad representan la urdimbre, el sustrato básico de la vida social y cultural.

### 3.2.3. *Entorno asociativo: pertenencia y participación en asociaciones*

Se atribuye a Aristóteles la idea de que el tamaño óptimo de la polis debe ser aquel en el que los ciudadanos puedan participar en los asuntos públicos de la misma. Las asociaciones y organizaciones cívicas constituyen el mejor instrumento de participación y desarrollo democrático. Aunque bajo el concepto de asociación se esconde una diversidad de organizaciones: culturales, deportivas, cívicas de muy diverso tenor, lo cierto es que constituyen la puerta de entrada para el ejercicio de la ciudadanía.

Pertenencia y participación son dos aspectos complementarios en función del nivel de compromiso en las asociaciones. Se trata de dos indicadores que constituyen el mejor termómetro social para medir la «temperatura democrática» de nuestra sociedad.

Tanto la pertenencia como la participación en asociaciones implican aproximadamente a un cuarto de nuestra sociedad. El grado de pertenencia en el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi es del 29,5% en el año 2004, la participación del 25,8%.

20. taulako datuak aztertzen baditugu, ikusi ahal izango dugu lagunek berealdiko garrantzia dutela Euskadiko gizonezko nahiz emakumezkoen bizitzan. Alde horretatik, esan genezake generoen artean alderik ez dagoela. Gizonezko nahiz emakumezko, biek zaintzen dituzte euren lagunak. Gainera, lagunek gero eta garrantzi handiagoa izan dute azken urteotan. Euskal AEan, ehun lagunetik 78,3k aitortu zuen, 1989. urtean, lagunak asko zaintzen zituztela; 2004an, aldiz, ehun lagunetik 83k baieztatu zuten horixe bera.

Jakin badakigu ere, aipatu beharra dago gizarte-maila batean ala bestean adiskidetasun-harremanek garrantzi ezberdina dutela. Batzuen ustez diru-sarrera urriak dituzten pertsonek hobe zaintzen dituzte euren lagunak diruz ondo dabiltzanak baino. Maila handia duten pertsonek bizitzaren ikuspegi askoz pribatistikoagoa dutela dirudi, horixe aipatu berri dugun interpretazioaren funtsa. Datuek, nolanahi ere, guztiz kontrakoa erakutsi dute: maila ekonomiko altua duten pertsonak dira, hain zuzen, lagunak gehien zaintzen dituztenak. Horrela, 2004. urtean diru-sarrera urriak zituztenen %72,1ek baieztatu zuten lagunekin harreman nahiko handia zutela; diru-sarrera altua zutenen kasuan, aldiz, itaundutakoen %92,7k. Arestian aipatu dugun moduan, soziabilitate-harreman handiak bizi-eredu pribatistikoaren eskutik datoz.

Horrek guztiak gizarte-kapitalaren defendatzaileen tesia berretsi du. Gizarte-kapitaltzat zera hartzen dugu: pertsona batzuek duten baliabide ukiezina, gizarte-sareak ezagutzetik eratorritakoa. Horrela, esan genezake, lagunarteko harremanen esanahiaren aldetik, «Mateo efektua» gertatu ohi dela. Hau da, *duenari gehiago emango zaio, eta gutxi duenari kendu*, hots, lan-merkatutik eratorritako gizarte-ezberdintasunez gain, norbanakoek gizarte-kapitaletik eratorritako aldeak ere pairatu behar dituzte.

Batera edo bestera, adiskidetasun-harremanak irazki modukoak dira, gizarte- nahiz kultur bizitzaren oinarrizko substratua.

### 3.2.3. *Inguru asoziatiboa: elkarteetako kide izatea eta elkarteetan parte hartzea*

Aristotelesek ideia bat zuen: herri baten tamainarik onena zera izango da, herritarrei udalerriko auzi publikoetan parte hartzea ahalbidetzen diena. Elkarteek eta gizarte-antolakundeek parte hartzeko eta demokrazia garatzeko tresnarik onenak dira. Elkarte kontzeptuak, hainbat erakunde mota besarkatzen ditu: kulturalak, kirolezkoak, hiritarrak, eta abar. Herritarrek horiek guztiak balia ditzakete gizartean parte hartzeko.

Elkarteekin izan dezakegun konpromiso mailari dagokionean, bi alderdi osagarri ditugu: elkarteetako kide izatea, batetik, eta elkarteetan parte hartzea, bestetik. Bi adierazle horiek gure gizartearen «tenperatura demokratikoa» neurtzen dute, beste ezerk baino hobe.

Gure gizartearen laurden bat, gutxi gorabehera, elkarteren batetako kide da edo elkarteren batean parte hartzen du. Euskal Autonomia Erkidego osoan, ehun lagunetik 29,5 ziren elkarteren batetako kide eta 25,8k parte hartzen zuten elkarteren batean.

*Evolución de la población de 6 o más años por la pertenencia y participación en asociaciones según Territorio Histórico en la C.A. de Euskadi. 1989-2004. (%)*

21

***Euskal AEko 6 urteko edo hortik gorako biztanleen bilakaera, elkarteetako kide izatearen, horietan parte hartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera. 1989-2004. (%)***

| **Lurralde Historikoak** Territorios Históricos | **Kide dira** Pertenecen | | | | **Parte hartzen dute** Participan | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1989** | **1994** | **1999** | **2004** | **1989** | **1994** | **1999** | **2004** |
| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi | **34** | **34** | **33** | **29,5** | **29,0** | **27,0** | **26,0** | **25,8** |
| **Araba** / Álava | 34,0 | 34,3 | 33,3 | 29,0 | 36,7 | 25,4 | 30,9 | 24,8 |
| **Bizkaia** | 30,0 | 37,7 | 32,8 | 30,2 | 27,0 | 27,1 | 24,6 | 27,2 |
| **Gipuzkoa** | 48,4 | 32,9 | 43,7 | 28,6 | 28,0 | 26,4 | 26,9 | 23,9 |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta 1989-2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 1989-2004.

*Evolución de la población de 6 o más años por la pertenencia a asociaciones según tamaño del municipio en la C.A. de Euskadi. 1989-2004. (%)*

22

***Euskal AE urteko edo hortik gorako biztanleen bilakaera, elkarteren bateko kide izatearen eta udalerriaren tamainaren arabera. 1989-2004. (%)***

| **Udalerriaren tamaina** Tamaño municipio | **1989** | **1994** | **1999** | **2004** |
|---|---|---|---|---|
| **Txikiak** / Pequeños | 27,5 | 31,2 | 34,3 | 28,3 |
| **Ertainak** / Intermedios | 29,3 | 32,1 | 31,1 | 24,7 |
| **Handiak** / Grandes | 36,0 | 34,2 | 32,6 | 31,7 |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta 1989-2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 1989-2004.

Tal y como se puede observar en la tabla 22, el grado de participación varía directamente con el tamaño del municipio: cuanto mayor es el tamaño mayor es también el grado de pertenencia.

Como resumen de este apartado, cabe señalar que el grado de participación en asociaciones se mantiene en unas cifras relativamente modestas, más si cabe, teniendo en cuenta que gran parte de la participación recogida pertenece a asociaciones deportivas o lúdico-recreativas. Si habláramos en sentido estricto de participación en asociaciones cívicas de carácter reivindicativo o asimiladas, las cifras serían mucho más modestas todavía. Se trata obviamente de una dimensión de la vida cívica que tiene que tener mucho más recorrido e importancia que la que tiene en la actualidad.

22. taulan ikus daitekeen moduan, udalerriaren neurriak baldintzatzen du parte-hartze maila: udalerria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta jende gehiago da elkarteren batetako kide.

Atal honetan agertutakoa laburbiltzeko, esan genezake elkarteetan parte hartzen dutenen ehunekoa nahiko apala dela. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu kirol nahiz aisialdiko elkarteak direla parte hartzaile gehien dituztenak. Kirol eta aisialdiko elkarteak alde batera utzita, zerbait aldarrikatzen duten elkarteetan parte hartzen duten pertsonen kopurua neurtuko bagenu, eskuen artean ditugun ehunekoak are apalagoak izango lirateke. Herriko bizitzaren alderdi horrek gaur egun duena baino askoz garrantzi handiagoa izan beharko luke.

## 4. LAS TAREAS DOMÉSTICAS

Hasta el momento hemos analizado las diversas formas de relación y actividades en la red social. Completaremos esta imagen con las actividades y tareas domésticas en las que se ven implicados los integrantes de los hogares.

### 4.1. Participación del núcleo familiar en las tareas domésticas

El número de horas semanales dedicadas a las tareas del hogar muestra una distribución claramente diferenciada según el género. Las diferencias encontradas son estadísticamente significativas.

Así, el 69,4% de los varones emplean menos de 10 horas a la semana de su tiempo en dichas tareas frente al 26% de las mujeres. Asimismo cabe mencionar que el porcentaje de mujeres que supera las 20 horas semanales representa el 41,1%.

## 4. ETXEKO LANAK

Orain arte gizarte-sarean aurki ditzakegun harreman- nahiz jarduera-motak aztertu ditugu. Irudi hori osatzeko, etxe berean bizi direnek gauzatu ohi dituzten jarduerak eta lanak aztertuko ditugu.

### 4.1. Familia-guneak etxeko lanetan nola hartzen duen parte

Alde handia dago gizonezkoek nahiz emakumezkoek etxeko lanak gauzatzeko eskaini ohi duten ordu kopuruaren artean. Aurkitu ditugun aldeak estatistikoki oso esanguratsuak dira.

Horrela, gizonezkoen %69,4k astean 10 ordutik behera eskaini ohi dizkiote gisa horretako beharrei. Emakumezkoen kasuan, %26k eskaintzen ditu astean 10 ordu baino gutxiago. Era berean, aipatu beharra dago emakumezkoen %41,1k astean 20 ordu baino gehiago ematen dituela etxeko lanetan.

*Población de 16 o más años que realiza tareas domésticas por su dedicación semanal según sexo en la C.A. de Euskadi. 2004. (%)*

23

***Etxeko lanak egiten dituzten Euskal AEko 16 urte edo gehiagoko herritarrak, astean etxean egindako lan kopuruaren eta sexuaren arabera. 2004. (%)***

| **Denbora (orduak)** Tiempo (horas) | **Gizonak** Varón | **Emakumeak** Mujer | **Euskal AE** C.A. de Euskadi |
|---|---|---|---|
| < 10 | 69,4 | 26 | 46,2 |
| 11-20 | 20,6 | 23,7 | 22,3 |
| 21-30 | 6,9 | 26,1 | 17,2 |
| 31-40 | 1,8 | 14,7 | 8,7 |
| 41-50 | 1 | 7,1 | 4,3 |
| > 50 | 0,2 | 2,4 | 1,4 |
| **Guztira** / Total | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta. 2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 2004.

Entre quienes sí participan en las tareas domésticas, la distribución vuelve a mostrar claras diferencias según género. La mayor distancia se registra en la preparación de comidas, fregado de vajilla, preparación de ropa y la limpieza de la casa. Los hombres se acercan más en tales como: «compra de alimentos». Los varones que no participan en las tareas domésticas, se inhiben especialmente de la preparación de la ropa, en la preparación de comidas y en la limpieza de la casa.

El gráfico 7 habla por sí mismo y muestra la enorme diferencia existente en la asunción de los roles domésticos en régimen de igualdad. Las diferencias son claramente desfavorables para las mujeres que son, en definitiva, quienes asumen la responsabilidad del hogar.

En cuanto a la edad, puede verse que el cambio de roles se está produciendo, quizás con más lentitud que la que sería deseable, pero irreversible. Así, si observamos la tabla 24 vemos que la distribución de roles cambia significativamente entre los mayores y los menores de 30 años. Ahora bien,

Etxeko lanetan parte hartzen dutenei dagokienean, gizonezkoen eta emakumezkoen artean alde nabaria dago berriz ere. Alderik handiena ondoko atazetan antzeman dugu: bazkariak prestatu, ontziak garbitu, arropa txukundu eta etxea garbitu. Gizonezkoek gehienetan honako lana hartzen dute: «elikagaien erosketa». Etxeko lanetan parte hartzen ez duten gizonezkoek, arropa prestatzea, jatekoa egitea eta etxea garbitzea saihestu ohi dute bereziki.

7. grafikoak argi erakusten du zein alde dagoen gizonezkoen eta emakumezkoen artean etxeko lanak egiteko orduan. Emakumezkoak dira, azken batean, etxeko ardura osoa euren gain hartzen dutenak.

Adinari dagokionean, ikus daiteke eginkizun aldaketa gauzatzen ari dela, nahi baino mantsoago, baina gertatzen ari da. Horrela, 24. taulari erreparatzen badiogu, argi ikusiko dugu 30 urtetik gorakoen eta beherakoen eginkizunak ezberdin banatzen direla. Orain bai, zehaztu beharra dago, oro har,

*Población de 16 o más años que realiza tareas domésticas por el tipo de tarea según sexo en la C.A. de Euskadi. 2004 (%)*

7

***Etxeko lanak egiten dituzten Euskal AEko 16 urte edo gehiagoko herritarrak, egindako lan motaren eta sexuaren arabera. 2004 (%)***




**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta. 2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 2004.

*Población de 16 o más años por el grado de participación en tareas domésticas según edad en la C.A. de Euskadi. 2004. (%)*

24

***Euskal AEko 16 urte edo gehiagoko herritarrak, etxeko lanetan parte hartzen duten neurriaren eta adinaren arabera. 2004. (%)***

| **Adina** Edad | **Aktiboa** Activo | **Lagundu ohi du** Colaborador habitual | **Noizean behin lagundu ohi du** Colaborador esporádico | **Ez du ezer egiten** Inactivo | **Guztira** Total |
|---|---|---|---|---|---|
| **20 urtetik behera** / < 20 años | 22,1 | 38,6 | 24,5 | 14,7 | 100 |
| 20-29 | 38,9 | 30,5 | 13,1 | 17,5 | 100 |
| 30-39 | 60,3 | 23,2 | 7,6 | 8,9 | 100 |
| 40-49 | 58,7 | 25,5 | 8,8 | 7 | 100 |
| 50-59 | 63,8 | 17,3 | 8,3 | 10,6 | 100 |
| 60-69 | 59,6 | 18,4 | 10,1 | 11,9 | 100 |
| ≥ 70 | 54,7 | 18,5 | 8,1 | 18,8 | 100 |
| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi | **54,5** | **23,3** | **9,9** | **12,4** | **100** |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta. 2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 2004.

conviene señalar sin embargo que, en términos generales, la cohorte de edad comprendida entre 30-39 años coincide con la edad de emancipación, y si tenemos en cuenta que no existen diferencias sensibles a partir de esta edad y superiores, podría pensarse que la situación está mucho más estabilizada desde el punto de vista de la asunción de nuevos roles de lo que parece a primera vista. Éste es un tema que debería abordarse en profundidad de forma mucho más especifica, aunque parece mostrar una cierta evolución en las generaciones que vienen.

30-39 urte artekoak etxetik joaten direnak direla. Eta, kontuan hartzen badugu adin horretatik aurrera ez dagoela aparteko alderik, esan genezake egoera lehen begi-kolpean pentsa genezakeena baino egonkorragoa dagoela. Gai hori sakontasunez aztertu beharko genuke, zehaztasun handiagoz. Nolanahi ere, ematen du datozen belaunaldietan egoera aldatzen ari dela, eta mutilek gero eta gehiago parte hartzen dutela etxeko lanetan.

## 4.2. Ayuda en las tareas domésticas

Es muy interesante conocer hasta qué punto las familias vascas cuentan con ayuda exterior para el desempeño de las tareas domésticas. Para ello, en la tabla 25 se recogen los datos disponibles al efecto.

Se observa que en el año 2004, el número de familias que tienen servicio doméstico, bien con carácter interno o externo, alcanza la cifra de 102.560 familias, lo que representa un 13,6% aproximadamente. Por otra parte, el número de familias que reciben ayuda a domicilio es de 64.579, lo que representa el 8,5% aproximadamente.

## 4.2. Etxeko lanetan laguntzea

Interesgarria da, oso, jakitea Euskadiko familiek zein neurrira arte jaso ohi duten kanpokoen laguntza etxeko lanak gauzatzeko. Hori dela eta, 25. taulan aipatu berri duguna ezagutzeko beharrezkoak diren datuak bildu ditugu.

2004. urtean, esaterako, Euskadiko 102.560 familiak dute etxe-zerbitzua, hots, %13,6k. Bestalde, 64.579 familiak laguntza jaso ohi zuten, hau da, gutxi gorabehera familien %8,5ak.

*Familias que tienen servicio doméstico o que reciben ayuda de otros hogares para realizar tareas domésticas en la C.A. de Euskadi. 2004*

25

***Euskal AEn etxeko lanak gauzatzeko etxe-zerbitzua baliatu edo beste etxeetako laguntza jaso ohi duten familiak. 2004***

| **Jasotako laguntza-mota** Tipo de ayuda recibida | **Familiak** Familias | (%) |
|---|---|---|
| **Etxe-zerbitzua** / Servicio domestico | | |
| **Ez dute** / No tienen | 656.952 | 86,5 |
| **Badute eta etxean bizi da** / Tienen y reside en la vivienda | 6.470 | 0,9 |
| **Badute baina ez da etxean bizi** / Tienen pero no reside en la vivienda | 96.090 | 12,7 |
| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi | **759.512** | **100** |
| **Etxerako laguntza** / Ayuda a domicilio | | |
| **Ez dute** / No reciben | 694.933 | 91,5 |
| **Badute** / Reciben | 64.579 | 8,5 |
| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi | **759.512** | **100** |

**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta. 2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida. 2004.

Pero, si la estimación del número de familias receptoras/prestadoras de ayuda doméstica es importante, mucho más lo es conocer cuál es el tipo de ayuda que se recibe. Analizadas las 64.579 familias que manifiestan recibir ayuda, las razones son las siguientes (ver gráfico 8).

Los datos del gráfico 8 son muy elocuentes. Nos indican que las familias vascas requieren de ayuda externa para hacer las labores más imprescindibles de limpieza, cuidado de la ropa, compra de alimentos y similares. Se trata de labores de intendencia necesarias en consonancia con las características de la familia actual en la que el hecho de que ambos cónyuges trabajen condiciona sensiblemente el día a día. Se observa asimismo que, a pesar de que se requiere ayuda para las labores del día a día, las tareas de cuidado tanto de niños como de ancianos siguen siendo responsabilidad de los miembros de las familias, fundamentalmente de las mujeres. El porcentaje de familias que demanda ayuda específicamente para cuidar ancianos y personas dependientes es todavía relativamente bajo, 14,80%

Dado que las razones por las que solicita la ayuda pueden ser muy diversas dependiendo de las características y tipo de familia, no es lo mismo una familia en la que trabajan ambos cónyuges que otra compuesta por una persona mayor de 65 años con problemas de movilidad; lo cierto es que el elemento diferenciador en esta variable es el tamaño de la unidad de convivencia. A menor número de miembros mayor

Asko dira, beraz, Euskal AEn etxeko laguntza hartu edo eskaini ohi duten familiak. Orain, ikus dezagun zein motatako laguntza jasotzen duten. Laguntza jasotzen dutela baieztatu duten 64.579 familia horiek aztertuko ditugu. Horretarako, hainbat alderdiri erreparatuko diegu (ikusi 8. grafikoa).

8. grafikoko datuak oso esanguratsuak dira. Grafikoak erakusten du Euskadiko familiek kanpoko laguntza behar dutela garbiketa oinarrizkoenak egiteko, arropa txukuntzeko, elikagaiak erosteko eta antzekoetarako. Gaur egun, gizonezkoek nahiz emakumezkoek lan egin ohi dute. Eguneroko oinarrizko betebeharrak egiteko, beraz, laguntza behar izaten dute. Era berean, nahiz eta eguneroko kontuak aurrera ateratzeko laguntza behar izaten duten, haurrak nahiz adineko pertsonak zaintzeko ardura familiako kideek hartu ohi dute, emakumezkoek, gehien bat. Adinekoak eta mendeko pertsonak zaintzeko laguntza eskatzen duten familien ehunekoa apala da oraindik ere (%14,80).

Familia mota asko daude, eta bakoitzak laguntza mota bat edo bestea eskatzeko arrazoiak ditu. Lanean dabiltzan bi ezkontideek ez dute bakarrik bizi den eta mugitzeko arazoak dituen 65 urteko pertsona batek eskatu behar duen laguntza bera eskatuko. Kasu honetan, egia esan, bizikidetzako unitatearen tamainak garrantzi handia du. Familian zenbat eta kide gutxiago egon, orduan eta gehiagok eskatu ohi dute

*Familias por la ayuda recibida de otros hogares para tareas domésticas en la C.A. de Euskadi. 2004. (%)*

8

***Euskal AEko familiak, etxeko lanak egiteko beste etxe batzuetatik laguntza jaso dutenak. 2004. (%)***




**Iturria: Eustat. Bizi-kondizioen Inkesta. 2004.**
Fuente: Eustat. Encuesta de Condiciones de Vida 2004.

es el porcentaje de casos que reciben algún tipo de ayuda. Concretamente el 12,5% de los hogares unipersonales reciben ayudas externas para las tareas domésticas, en el estudio de 2004. Mientras que si los hogares comprenden cuatro y 5 o más integrantes el porcentaje se disminuye drásticamente, hasta un 3,8%.

laguntza mota bat edo beste. Bakarrik bizi diren pertsonen %12,5k kanpoko laguntza jaso zuten –2004 ikerketaren datuen arabera– etxeko lanak egiteko. 4 lagun, 5 lagun edo gehiago bizi diren etxeetan, aldiz, askoz laguntza gutxiago behar izaten dute (%3,8).

## 5. CONCLUSIONES

Los cambios históricos, culturales y económicos han influido decisivamente en la evolución familiar, tanto en su composición como en sus modos de relación. Los lazos familiares se extienden y amplían suponiendo, junto con los amigos, el mejor soporte para el individuo en una sociedad en transformación.

Las actividades relacionales han aumentado, así como su frecuencia –de algo sirve la sociedad de la comunicación altamente tecnologizada–, pero también se han atomizado y desinstitucionalizado en los últimos años.

La primera consecuencia de unidades de convivencia más reducidas y de la disminución del número de hijos repercute directamente en el desarrollo de las habilidades para la convivencia. Dado que el número de familias que sólo tienen un hijo alcanza casi a un tercio de los hogares, debemos considerar que aprender a compartir en el seno de las relaciones fraternales será una asignatura pendiente para los niños hasta su escolarización.

En segundo lugar, se diluyen las relaciones con la familia extensa, ya que en los hogares con menor número de miembros se registra una menor relación con parientes. Todo ello avala el desequilibrio a favor de las fuerzas centrípetas generando una disminución de la comunicación con el exterior de la familia conforme son más reducidas en número.

En general, las familias se visitan, se comunican pero sobre todo se prestan ayuda, especialmente referida a tareas del hogar y otros servicios. Como se mencionaba en el Informe Socioeconómico de la C.A. de Euskadi de 2006, la familia próxima sigue siendo el primer recurso al que se acude en caso de necesidad, especialmente en los colectivos de jóvenes y ancianos.

Aunque es indudable que se van realizando cambios en la asunción de responsabilidades en el hogar, los datos indican que aún estamos lejos de una situación de paridad entre géneros. Los hombres participan en mucha menor medida que las mujeres, con menos horas de dedicación y excluyéndose claramente de algunas funciones. Tan sólo la compra de comida y posiblemente actividades de reparación y mantenimiento del elementos del hogar registran una mayor implicación masculina, aunque sin alcanzar la de las mujeres en ninguna de estas actividades.

Las relaciones con amigos se intensifican gradualmente, pero siempre se mueven en el ámbito de una sociabilidad no implicativa; la prestación de ayuda mutua baja sensiblemente tanto en las relaciones de amistad como en las relaciones vecinales.

Como hemos destacado, un peligro potencial es la reducción de las relaciones externas, lo que puede provocar un retraimiento del ámbito social hacia el núcleo familiar. La escasa participación y actividad en asociaciones es un exponente de esta tendencia, a excepción de las recreativas. Tras varios años de crecimiento, durante el período 1999-2004 se manifiesta un retroceso en la afiliación a grupos y asociaciones.

## 5. ONDORIOAK

Historian gertatu izan diren aldaketa kulturalek nahiz ekonomikoek erabateko eragina izan dute familiaren eboluzioaren gain, bai familien osaerari dagokionean, baita besteekin harremanean egoteko orduan ere. Familiarteko loturak zabaldu egin dira, indartu egin dira. Familia eta lagunak, beraz, norbanakoek aldatzen ari den gizarte honetan zutik irauteko dituzten makuilurik onenak dira.

Harremanean egoteko jarduerak indartu egin dira, baita harreman horien maiztasuna ere –zerbaitetarako balio behar zuen komunikazioaren gizarte makro teknologizatu honek–. Harreman batzuk, bestalde, hautsi eta desinstituzionalizatu egin dira azken urteotan.

Bizikidetzako unitateak gero eta txikiagoak dira. Gero eta seme-alaba gutxiago daude familiatan eta horrek eragin zuzena du bizikidetzarako gaitasunak garatzearen gain. Etxeen heren batean seme edo alaba bakarra dago. Beraz, haurrek eskolara joan arte ez dute jakingo gauzak partekatu egin behar direla adiskidetasun-harremanek aurrera egin dezaten.

Bestalde, urruneko senideekin gero eta harreman gutxiago dugu. Izan ere, kide gutxien dituzten familiek harreman gutxiago dute senitartekoekin. Horrek guztiak indar zentripetoen alde jarri du balantza. Ondorioz, familiak zenbat eta txikiagoak izan orduan eta harreman urriagoa dute familiaz kanpokoekin.

Oro har, familiak elkarri joaten zaizkio bisitan, komunikazioa dago euren artean baina, batez ere, laguntza eskaintzen diote elkarri, berezi-bereziki etxeko lanak egiteko eta bestelako zerbitzuak eskaintzeko orduan. 2006. urteko Euskal AEko txosten Sozioekonomikoan aipatu bezala, gertuko familiara jotzen dugu laguntza behar dugunean, batez ere gazteek eta adinekoek.

Etxeko lanen ardura hartzeko orduan, aldaketak gertatzen ari dira. Hala eta guztiz ere, datuek argi uzten dute emakumezkoen eta gizonezkoen artean alde handia dagoela oraindik gaur egun. Gizonezkoek ez dute emakumezkoek bezain beste parte hartzen, ordu gutxiago sartzen dituzte eta, argi eta garbi, ez dituzte etxeko zenbait lan egiten. Gizonezkoek elikagaiak erosi eta etxean gauzaren bat edo beste konpondu ala zaindu ohi dute, gehien bat. Bi jarduera horietan, nolanahi ere, ez dira emakumezkoen parte-hartze mailara heltzen.

Lagunekin gero eta harreman handiagoa dugu baina, betiere, gehiegi busti gabe. Elkar-laguntza, dagoeneko, ez da lagunekin eta auzokoekin dugun harremanaren oinarri.

Arestian azpimarratu dugun moduan, kanpoko harreman urria izan daiteke etorkizuneko arazoetako bat; ondorioz gerta daiteke familiaz kanpoko jendearekin gero eta harreman gutxiago edukitzea eta familiako harremanak indartzea. Elkarteetan, aisialdiko-elkarteetan izan ezik, gero eta gutxiago hartu ohi dugu parte. Horixe da mintzagai dugun joeraren adierazgarrietako bat. Hainbat urtez hazi ondoren, 1999-2004 urteen artean taldeetara nahiz elkarteetara afiliatutakoen kopuruak behera egin du.

El panorama general indica un período de cambios y transformaciones, un fortalecimiento de lo nuclear y la debilitación de lo periférico; queda por comprobar si ésta es una reacción natural y coyuntural en períodos de crisis y si los núcleos familiares serán suficientemente permeables para permitir la apertura a relaciones con el exterior en el futuro y retejer el entramado asociativo.

Oro har, aldaketa epe batean gaudela ematen du. Guneak edo nukleoak indartzen ari dira eta inguruko taldeek, berriz, indarra galdu dute. Baliteke erantzun hori krisialdietan normala izatea. Era berean, ikusi beharko dugu familia-guneak nahikoa iragazkor izango diren, etorkizunean familiaz kanpokoekiko harremanak ahalbidetuko ote dituzten eta elkarte-sarea indartu.

# 6. BIBLIOGRAFÍA

AIZPIRI, J. et al. (2002): Manual de habilidades en salud mental para médicos generales. Madrid, Sociedad Española de Medicina General,

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL (2003): Informe sobre modelos de familia y políticas familiares. Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza.

EUSTAT (2006): Informe Socioeconómico de la C.A. de Euskadi. 2006. Bilbao, Eustat.

MASLOW, A. (1979): El hombre autorrealizado. Barcelona, Kairós.

SCHMIDT, J.; PADILLA, B. (2002): Self-esteem and family challenge: An investigation of their effects on achievement. Journal of Youth Adolescence, 32 (1): 37-46

# 6. BIBLIOGRAFIA

AIZPIRI, J. et al. (2002), Manual de habilidades en salud mental para médicos generales. Madril, Medizina Orokorreko Espainiako Sozietatea.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (2003): Familia-ereduei eta familia-politikei buruzko txostena. Eusko Jaurlaritza.

EUSTAT (2006): Euskal Autonomia Erkidegoko Txosten Sozioekonomikoa. 2006. Bilbo, Eustat.

MASLOW, A. (1979): El hombre autorrealizado. Bartzelona, Kairós.

SCHMIDT, J.; PADILLA, B. (2002): Self-esteem and family challenge: An investigation of their effects on achievement. Journal of Youth Adolescence, 32 (1): 37-46